# PROGRAMAZIO LABURTUA

| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASTETXEAREN IZENA | BENTADES IKASTETXEA | Kodea: 014777 | |
| ARLOA / IRAKASGAIA | GAZTELANIA | DATA | 2017-2018 |
| MAILA | | 2.ZIKLOA | |

| 1 | ARLOAREN GUTXIENEKO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA |
|---|---|

1. Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.
2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.
3. Era egokian elkarrizketan aritzea era askotako egoeratan, errespetuz eta lankidetza asmoz, hartara norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza talde-lanean eraikitzeko.
4. Gizarte-hedabideak, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea eta lankidetzan aritzea, informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea, eta jakintza eraikitzea eta bizitza sozialean parte hartzea.
5. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta -arauei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utzita hizkuntzaren estereotipoak, hau da, edozelako balio-judizioak eta aurreiritziak.
6. Ikasgelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasunari aitorpena eta balioa ematea, hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera ona edukitzeko, euskara erabiltzeko eta hizkuntza gutxitua normaltzearen aldeko jarrera izateko. Horrekin batera, hizkuntza guztiak komunikazio tresna egokitzat eta kultura-ondaretzat hartu behar ditu ikasleak.
7. Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko sorburua den aldetik.
8. Literaturaz gozatzea, genero askotako literatura testuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturetakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamena eman behar diote ikasleari, eta baliatu egin behar ditu sentikortasun estetikoa handitzeko, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.
9. Literatura-hizkuntzaren oinarrizko konbentzioak ezagutzen hastea, testuok ulertzeko eta literatura-xedeko testuak egiteko.
10. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.

| 2 | EDUKIEN DENBORALIZAZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1. ebaluazioa | | 2. ebaluazioa | | 3. ebaluazioa |
| | **4. MAILA**<br>• Comprensión de textos orales según su tipología.<br>• Lectura, comprensión, interpretación y valoración de textos escritos en relación con el ámbito de | | **4. MAILA**<br>• Comprensión de textos orales según su tipología.<br>• Lectura, comprensión, interpretación y valoración de textos escritos en relación con el ámbito de uso y en relación | | **4. MAILA**<br>• Comprensión de textos orales según su tipología.<br>• Lectura, comprensión, interpretación y valoración de textos escritos en relación con el ámbito de |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | uso y en relación con la finalidad que persiguen.<br>• Normas y estrategias para la producción de textos.<br>• Conocimiento y aplicación progresiva de las normas ortográficas.<br>• Sujeto y predicado.<br>• Diptongos y hiatos.<br>• Sinonimia y antonimia.<br>• El sustantivo.<br>• Prefijos y sufijos.<br>• El grupo nominal.<br>• Determinantes.<br>• El cuento, las leyendas; las fábulas | | con la finalidad que persiguen.<br>• Normas y estrategias para la producción de textos<br>• Conocimiento y aplicación progresiva de las normas ortográficas.<br>• Los determinantes.<br>• Formación de palabras derivadas.<br>• Conocimiento y aplicación progresiva de las normas de puntuación.<br>• Verbos.<br>• Formación de palabras derivadas.Textos literarios: la poesía<br>• Identificación de recursos literarios. | | uso y en relación con la finalidad que persiguen.<br>• Normas y estrategias para la producción de textos<br>• Conocimiento y aplicación progresiva de las normas ortográficas.<br>• Adverbios e interjecciones.<br>• El teatro: actos y escenas.<br>• Preposiciones y conjunciones.<br>• El cómic.<br>• Adjetivos.<br>• Formación de palabras compuestas.<br>• Textos literarios y no literarios. |
| | **3. MAILA**<br><br>• El orden alfabético.<br>• La comunicación.<br>• Tipos de punto y el párrafo.<br>• La carta y la anécdota.<br>• El diccionario.<br>• La oración y la palabra.<br>• La sílaba tónica y la sílaba átona.<br>• Las normas.<br>• El verso y la rima.<br>• Las onomatopeyas.<br>• Las clases de los sustantivos.<br>• Poemas.<br>• La estrofa.<br>• Los sustantivos: género y número.<br>• La coma y los dos puntos. | | **3. MAILA**<br><br>• Los antónimos.<br>• El adjetivo.<br>• Describir personas.<br>• El campo semántico.<br>• Los determinantes demostra-tivos.<br>• Describir objetos.<br>• Los diminutivos y los aumentativos.<br>• Los pronombres personales.<br>• Describir lugares.<br>• El cuento.<br>• Las palabras polisémicas.<br>• El verbo: infinitivo, número y persona. | | **3. MAILA**<br><br>• Los prefijos.<br>• El verbo: presente, pasado y futuro.<br>• El cómic.<br>• Los sufijos.<br>• Verbos regulares e irregulares.<br>• Reglas de acentuación.<br>• La noticia.<br>• Palabras compuestas<br>•La oración y sus partes<br>• El teatro<br>• La familia de palabras.<br>•Clases de oraciones. |

| 3 | EBALUAZIO- IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK |
|---|---|

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, haien erabilerako testuinguruan kokatuta. Testu horien informazio garrantzitsua antzematea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa
2. Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.
3. Laguntza jasota, informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.
4. Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak era antolatuan azaltzen dituzten testu erraz eta laburrak.
5. Ikastetxeko harreman-egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.
6. Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza-mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.
7. Lagundu jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez eta erabilpen horren xedea ikastea izanik.
8. Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea.
9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza-jardueretan erabiltzea.
10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.
11. Hizkuntza gutxituak garatzearen eta normaltzearen alde dago.
12. Gelako liburutegia eta mediateka erabiltzea eta haien antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.

## KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Orokorrean kontutan izango ditugun irizpideak hauek izango dira:

- **Edukiak: %60**
- **Prozedurak eta jarrera: %40**
  - Etxeko lanak ondo egitea eta ikastea.
  - Garbitasuna eta materialaren zaintza.
  - Egunerokoan parte hartzea eta besteak errespetatzea..
  - Irakasgaiarenganako jarrera.
  - Agendaren erabilera egokia.
  - Talde lanetan, modu egokian elkarlan egitea.